

Aretxabaleta,
1993ko maiatzak 27

Aretxagazeta

BELTRAN DE HEREDIA, FELIS
ANDRAMARI, 7- 2. EZK.
ARETXABALETA

Publikoa ala pribatua

• *K-2rako bidean*

• *Afizioak:
Jose Ramon
Elkoro*

• *Kirolak:
Udarako aukerak*

30. zka.



**"Aurtengo
lemak
gizarteak
sortzen
dituen
diferentziak
gainditu
gura ditu"**

Ezezagunak izeneko lema da Atzegik (Gipuzkoako Atzeratuen Aldeko Elkartek) kale-

Ezezagunak

ratu duena aurtengo kanpainiarako.

Joan zen urtean, BIZI ELKARBIZI izan zen lema eta aurten gehiago sakondu gura dugu: ELKARBIZIEZAGUTUAZ.

Orain dela gutxi, Gipuzkoako herri batean, komunitate bateko auzokide batzuk, euren auzoan atzeratu batzuek bizi behar zutelako protestatu egin zuten.

Kokatu ziren, denbora pasatu zen eta ezagutu zituztenean protesta egin zuten auzokideek, auzokide zogarriak zituztela onar-

tu zuten.

Adibide hori oso argigarria da eta Gipuzkoako herri batean gertatu den moduan, beste edozein lekutan gerta zitekeen.

Aurtengo lemak gizarteak sortzen dituen diferentziak gainditu gura ditu eta gainditzeko forma bakarra ezaizte da.

Atxabaltan bistaz denok ezagutzen ditugu atzeratuak, baina ez ditugu euren gustuak, euren sentikortasunak, euren desioak ezagutzen eta beraz ez gara gauza

euren gustokoa den ezer eskeintzeko.

Hau da gure aurtengo desafioa. Agur bat bere izenean, txalo bat sorbaldan, berba egiten gelditu, hauek dira eurak ezagutzeko lehen bi-deak.

Orain arte, Atxabaltako herriak erantzun ona eman dio sentikortasun horri eta ziur gaude urrats berri hori ondo onartuko duela.

Animo eta jarraitu orain arteko bi-dean.

Adolfo Etxebarria.
" Aratz " Aretxabaletako Atzeratuen Aldeko Elkartearen Lehendakaria.

Aretxagazeta

Argitaratzailea: Aretxagazeta Elkartea, Kultur etxea, Aretxabaleta Tfnoa: 79 01 05. 151 postakutxatila
Zuzendaria: Jokin Antxia, **Erredakzio-konseilua:** Jon Sarasua, Inma Migel, Jon Antxia, Iñigo San Juan, Miriam Txintxurreta, Rosa Mari Uriarte eta Jon Iñaki Izarzelai. **Publizitate eta erredakzio arduradunak:** Goretzi Ayastuy eta Agurtzane Elkoro **Kolaboratzaileak:** Alfredo Meabe, Gaizka Larrinaga, Aitor Antxia, Gotzone Guemes, Iñaki Urreta, A. Galdaera, T. Aragoñes, R. Velasco, J. M. Torres, E. Vazquez, Beinke, Udala.
Inprimategia: Eguzkigraf **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper Birziklatuan egiten da.

Zer daukazu esateko banda barriaren gainean?




Elena Ugalde
(Etxekoandrea)

Niri oso ondo iruditzen zait. Udalak, horretarako dirua badauka pagetako, oso ondo. Eta kanpoko jendeak parte hartzea ere ondo ikusten dut.




Mila Arakama
(Langilea)

Oso ederto. Behar bada, gazteek ez dute erantzungo, baina gazteek parte hartzea gauza garrantzitsua da bandarako.



Benito Domaika
(Jubilatua)

Ondo iruditzen zait, baina ez dakit gazte hauek beteranok moduko maila eukiko duten. Lehengoa behintzat oso ona zen.



Pello Marrupe
(Langilea)

Ohiturari jarraituz ondo dago banda bat eukitzea. Beti futbolaz arduratu beharrean, ondo ikusten dut musika eta kultura maila zabalduaz joatea.

PUBLIZITATEA

ARETXAGAZETako
BAZKIDE izan gura baduzude:

☎ 79 01 05

Arratsaldeko
3retatik 7etara

MATIKUA
TABERNA

Azatza auzoan

☎ 79 16 68

ARETXABALETA



MAPFRE
Aseguroak

Angel Zubillaga
Aseguruen ordezkaria

Errekabarren, 3
Telf. 77 11 76

20550 ARETXABALETA

MUGARRI

Mondeo



Barruko indardun
edertasuna

Injinerutza aurreratua
eta aintzindaririk
gabeko maila teknikoa.



Otalazelai eguna

Joan den domekan Otalazelai eguna ospatu zen. Bertan atxabaltar ugari bildu ziren, jai giroa aprobetxatzeko asmotan. Goizeko 9,30etan eman zitzaion hasiera jaiari, eta gabeko 12,30ak arte luzatu zen.

Asko bertan geratu ziren bazkaltzen jai giroan jarraitzearren. Eguztiaz zehar ikuskizun

desberdinak ikusteko aukera izan zuten han bildutakoek: tortila txapelketa, Beinkek antolatutako jokuak eta sari banaketa, soka tira, herriko banda, dantzak...

Otalazelai eguna aprobetxatuz, herriko Elkarritailerkoek firmak biltzen jardun zuten, nahiz eta sinadura bilketa ofizialki 22an hasi.



EAREN prentsaurrekoa EAJri erantzunez

Aretxabaletako E.Ak joan zen eguakotxean prentsaurrekoa eman zuen, E.A.Jk zabaldu-tako informazioari erantzunez.

22. zonari buruzko negoziatioak direla eta, E.A.Jkoen aholkuak agertu aurretik ari direla negoziaketetan argitu gura dute.

San Miguel etxebizitzetako subentzioaekin, barriz, E.Akoek lasaitzeko eskatzen diete eta konfidantza gehiago izan dezatela Gobernu Tal-

dean eta Kooperatibetako Errektore Kontseiluan, gestioak ondo doaz eta. Gainera, argitu, jenterea soldatapeko bat dela eta bere paga fijoaren enpresako administrazioak jarritakoa dela; Kutxa, Aurrezki Kutxa, Foru Aldundiak eta Udaleko entitateek integratutakoa.

EAK adierazi zuenez, enpresak eta interesatuek ez dute ekintza judizialen bidea hartuko gezur horiek bota dituztenen kontra.



Joan zen zapatuan, maiatzaren 15ean, H.Bko jarraitzaileek herri afaria izan zuten. Lehenengo enkartelada egin zen, gero trikitalariekin poteoa eta azkenik afaria.

**IZOTZ
TABERNA**

MITARTE KALEA
☎ 79 73 65



Bere Bezeroen zerbitzura


Mitarte, 16
☎ 79 01 72



MIREN & ZURINE
BITXIEN DISEINUA

Otalora Kalea, 4 - Tfnoa: 77 13 57
ARETXABALETA

BITXITEGIA



Hasi da K2rako igoera

Dagoeneko Txina aldean izango dira K2ra igoten saiatuko diren partaide guztiak. Zazpi lagun ez osatutako espedizioa izango da, 5 atxabaltar eta bi nafar. Nafarrek beheko kanpamentuko lanak egingo dituzte.

Ekainaren 8rako edo espero dute beheko kanpamentura heltzea eta abuztu hasieran gailurra lortzen saiatuko dira. 1. kanpamentua 3.000 mra jarriko dute, 2.a 4.000ra, 3.a 6.000ra eta 4.a 8.000ra gutxi gorabehera.

Glaziarretik gora karga eroatea izango da gaxena, puntu batetik gora kameiluak ezin dute igo eta.

Partaideak ez daude oso konbentziturak arista barri horretatik igotea lor-

tzearekin. Arista horretatik igotea lortzen badute, Euskal Herriko mendizale-tasunarentzat lorpen handia izango da.

Arista hau igoteko elur palak aprobeztatuko dituzte.

Diru aldetik azken momenturarte ez dute lortu ezer ofizialki. Astorek hasieratik eman zien babesa eta material guztia, baina ez 18 milioiak. Beste patrozinadorea Kutxa izango da.

Aurkezpen hau bukatzeko Ramon Garate eta Jabier Zuñigak euren azalpenak eman zituzten, hauek izan dira talde honen prestakuntza fisikoan arduradunak eta.

Hemendik zorte ona opa diegu.

San Pedro jaien kartel lehiaketa

Eskoriatzako Udaleko Kultura Batzordeak 1993ko San Pedro jaietako egitarauaren azala aukeratzeko lehiaketa antolatu du.

Lehiaketa horretan edozeinek hartu dezake parte.

Edozein eratako lanak onartzen dira: collagea, pintura,... eta formatoak 50 x 65zkoa izan behar du.

Kartelek derrigorrezko testu hau izan beharko dute: Eskoriatza, 1993ko San Pedro jaiak". Kartel-ekin batera, sobre itxi batean, partehartzaileen datu pertsonalak eta N.A.Naren zenbakia bidali behar dira.

Lanak aurkezteko epea ekainaren 3an bukatuko da, Eskoriatzako Kultur Etxera bidali beharko dira eta irabazlearendako ezarri den saria 25.000 pezetakoa izango da.

Epaimahaiak 1993ko ekainaren 7a baino lehen emango du bere erabakia eta hau apelaezina izango da,


• Gazte txartelak barritzeko epea zabalik dago. Barritu gura duenak Kultur Etxera joan dadila; argazkia eta N.A.N. beharrezkoak dira.

• Aurten ere Udaleku irekiak izango dira. Hori dela eta, monitore lanetan parte hartu gura duten gazteek ekainaren 1etik 11ra bitartean izena eman dezakete Kultur Etxean.


• Gipuzkoako Udal-euskaltegien Udako barnetegi-erako matrikula epea maiatzaren 24etik ekainaren 4era zabalik dago. Interesatuak deitu 620262, Irungo Euskaltegira.



**Gipuzkoako
Foru Aldundiak
diruz lagundutako
aldizkaria**



**Kultura sailak
diruz
lagundutako
aldizkaria**




ZENBAKI
Aholkularitza

Basabe industrialdea
Aretxabaleta
Tfnoa: 79 88 75

**Kontabilitatea
Fiskalitatea
Lana
Juridikoa
Finantzaketa
Aseguruak**

Biteri etorb. 15
Arrasate
Tfnoa: 77 12 39



1993ko Andramari jaien kartel lehiaketa

Atxabaltako Andramari jaiak iragartzeko erabiliko den kartelaren aukeraketarako, Kultura Batzordeak Kartel lehiaketa antolatu du.

Lehiaketan edozein atxabaltarrek hartu dezake parte.


Teknika librea izango da, eta kartelek 50 X 70 zmkko neurria izango dute. Kartelek derrigorrez testu hau izan beharko dute: Andramari jaiak 93 / Abuztuak 14, 15, 16 eta 17 Aretxabaleta. Kartela-

rekin batera, sobre itxi batean, egilearen datuak adierazi behar dira.

Lanak aurkezteko epea ekainaren 30ean bukatuko da eta Aretxabaletako Kultur Etxera bialdu beharko dira.

Irabazlearendako ezarri den saria 35.000 pezeta eta trofeoa izango da.

Kartel lehiaketarako epaimahaia Kultura Batzordearekin batera, herriko hainbat pertsonen osatuko dute.



egin i laguntzeko taldea

Egin egunkaria jasaten dabilen boikot instituzionala dela eta, joan zen maiatzaren 17an hitzaldia izan. Hitzaldian, Jose Luis Elkoro eta Pablo Gorostiaga, Kontseilu Administratiboko partaideak izan ziren, Eginen Laguntza Batzordeak ekarrita.

Egin egunkaria 1977an jaio zen, Euskal Alderdien alternatiba moduan. Egin egunkariak, arazo ekonomikoak zeuzkan eta urtero jaitziera. "Arazo hauei aurre egiteko, urrats batzuk eman ziren; erre-dakzioa eta konposizioa aldatu genituen".

Ondoren rotatiba aldatzea pentsatu zuten. Rotatiba barria erosi eta

rotatiba barruan kolorea. "Horrek guretzat 500.000 edo 600.000 miloiko inbertsioa suposatzen zuen. Hori egiteko kreditu batzuk eskatu genituen. Baina 91ko azaroan Eusko Jaurlaritza eta Gobernuko instituzioak berriro boikot egiten hasi ziren".

Joan zen urtean diru kopuru inportatea galdu zuten eta aurten ere berdin. "Beraz diru biketa egitea pentsatu genuen herriz-herriz".

Hori dela eta, Atxabaltan ere 3 laguneko taldea elkartu da, Egin egunakariaren aldeko dirua lortzeko, ideiak jasotzeko... Talde hori Urbaltz elkartean elkartzeko da astelehenero.



LASAGABASTER

ZURE KONFIANTZAZKO DENDA

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55



San Migeleko auzokideak konponbide bila

Joan zen martizean, maiatzaren 18an, San Migeleko auzokideekin batzarra egin zen Atxabaltako udaletxean. Ekintza horretan hirigintza eta etxebizitzako kontseilaria den Jose Antonio Maturana izan zen, eta baita bere departamentuko zuzendaria den Jabier Alejo ere. Batzarrean San Migel auzoko erreabilitazioa onartu zen.

Onarpen horren helburuak hauek dira:

- Historikoak izan ez arren, egoera larrian dauden eremuak konpontzea, derrigorrezko errekerperazioa

behar dutelako.

- Auzokideei laguntza ekonomikoa ematea, kredituen bitartez ... Batez ere gutxi irabazten dutenei.

Laguntza horrek Hirigintza Sailak ematen duen laguntza haunditzen du eta kontseilariak esan zuenez horretan jarraitzeko asmoa daukate, gutxi irabazten dutenei euren bizi baldintzak hobetzen lagunduz.

Hirigintza Batzordearen ardura duen zinegotziak adierazi zenez, laguntza horretarako 30.000 miloiko aurrekontua izango da.



Eskolarteko olinpiadak

Joan den zapatuan, maiatzaren 22an, eskolarteko olinpiadak izan ziren Atxabaltan. Egun horretan eguraldiak lagundu zuen eta 1385 haur elkartu ziren Atxabalta osoan zehar, 100 monitoreren laguntzaz. Haur guzti horiek kirola zuten helburu bakarra

egun horretan. Arratsalde osoan zehar kirol mota desberdinak izan ziren leku desberdinetan: doke, skate, igerilekuan jokuak...

Bukaeran parte hartzaile guztiei opari bana eman zitzaion, eta bizikleta eta beste opari batzuk zozketatu ziren.

Iza, enpresa barria

Herriko kaleen garbiketaz arduratuko den enpresa barria sortu da, Iza izeneko enpresa. Udalak kontratatu du enpresa barri hau, euren eskaerak onartuta gero. Enpresa langile bik osatzen dute; Luis Igledias eta Rafa Zamorak eta

gero Udalak kontratatutako beste pertsona bat dago euren kargu. Kale garbitzaileek kaleak garbitzen, kartelak kentzen eta alkantarietako ahoak garbitzen jardungo dute.

Oraingoz urte beteko kontratua daukate.


ANGELINES

Autoserbitzua



Mitarte, 16

Tfnoa : 79 61 42




LENIZ

Liburudenda

Jostailuak
papertegia
idaztegi gaiak

Herriko plazan

☎ 79 16 16



EGVZBIGRAF

INPRIMATEGIA

Aldizkariak

Inpresioak

Bulegoko materialak

Basabe poligonoa, A-2-7 Tfnoak 79 29 41 eta 79 18 44

Orain dela 25 urte euskara eta euskal kultura sufritzen zebilen zapalke-tari erantzun bat eman guran sortu zen Ikastola Aretxabaletan. Herri ekimenaren ondorioa eta gurasoen ahaleginaren emaitza izan zen Ikastola. 500 bazkide inguru batzea lortu du herriko Ikastolak bere historian. Azken hamar urteotan, Udalaren bidez Loramendi ikastolak eskola publikoarekin bat



Almen lehengoan, Loramendi publikora

eginda funtzionatu du.

ALMEN ere orain dela 25 urte inguru sortu zen, batez ere Aretxabaletako ekimenetik, bailaran batxilergoa egiteko zegoen hutsunea bete guran. Urte guzti hauetan kooperatiba izan da eta une hone-tan 1.880 bazkide ditu. Aretxabaletakoa baino gehiago bailara osoko errealitatea dela esan daiteke.

Bi ikastola hauei, Euskal Herriko beste ikastola guztiei bezala, publikoaren ala pribatuaren bidea erabakitzeko ordua heldu zaie, Hezkuntza Sailak egindako sailkapenaren arabera. Erabaki horretan faktore asko nahasten dira gure herrian.

Loramendi publikora

Loramendi ikastolaren etorkizuna erabakitzeko

maiatzaren 18an egin zen Batzar Nagusia. Faktore asko zeuden erabakiaren inguruan. Publikoaren sartzearen aldekoek, orain arte lortutako integrazioaren bidetik jarraitzea azpimarratu zuten. Ikastola bezala jarraitzeak arlo ekonomikotik eta legez-kotasun aldetik zailtasunak izango zituela denek onartu zuten. Ikastola bezala jarraitzearen alde berba egin zutenek zioten posible zela ikastola mantentzea eta orain arte moduan integrazioa mantentzeko formulak topatzea. Eztabaidaren sakonean faktore asko zeuden: Integrazioaren gaia, ume eskasia, eta ALMEN eta Kurtzebarri eskolaren arteko lehia. Azkenean, eztabaidaren ondoren, bazkideek publikoan sartzeara erabaki zuten, behar zen 2/3 portziora lortuz. Bozkatu

Loramendi ikastolaren ondasunekin zer egingo den erabakitzeko Batzar Berezia egingo da.

zuten 80 bazkideetatik 55 agertu ziren publikoan sartzearen alde, 21 kontra eta 4 zuri. Loramendi ikastolak lortutako ondasunekin zer egingo den erabakitzeko beste Batzar Nagusi bat egingo da


Almen lehengoan

Almen ikastolak, barriz, kooperatiba izaten jarraitzea erabaki du astelehen egindako Batzar Nagusian. Orain ikusi behar da horrek nola eragiten duen euren matrikula-tasetan.

Batzar nagusian gehiengo handi batekin erabaki zuten: 116 boto orain arte moduan jarraitzearen alde, 13 publikoan sartzearen alde.

Beraz, denetik egon da gure herrian, Eskola Legearen aurrean hartu beharreko jarretetan.

Zergatik Loramendi ikastola publikoa ala pribatua?



Loramendi ikastolako prozesua ikusita gero, eskola pribatuaren aldekoa den Juajo Arabaolazarekin izan gara berbetan.

Niri ez zait gustatzen Euskal Eskola Publikoaren legea, lege horrekin erabaki guztiak administrazioak hartzen

dituelako; euri dagozkiegak edo inori dagozkionak, baina euren menpe dago. Zuzendaria, azpi zuzendaria, hezkuntz proiektua, pertsonala eta dena dago euren menpe. Lege hori ez gustatzearen arrazoi bat hori da.

Bigarren arrazoa, Atxabaltan horrenbeste kostatu dena eta funtzionatzen zuena orain publikora horrelako samur botatzea!

Bi arrazoi horiengatik jotzen dut pribatua eta gehien bat legea gustatzen ez zaidalako, legeak ikastolari nortasuna kentzen dio eta.

Loramendi Ikastola sortu zenean, Udalean koordinazioa erroteko plan bat zegoen eta hau Loramendi Ikastolarekin eta Kurtzebarri eskolarekin sortu zen. Orduan, Zuzendaritza Batzordeari lana gutxitu egin zitzaion, diruaren ardura eta beste gauza asko administrazioetik zetoze-lako.

Poliki-poliki Loramendi ikastola nortasuna galduaz joan zen. Momentu bat heldu zen erabaki bat hartu behar zena eta nik uste dut Batzar Nagusian egon

ginen inori ez zitzaigula gustatzen erabaki hori hartzea.

Atxabaltandako problema horrela jarraitzea izango litzateke, baina posible ez zenez erabakia hartu behar genuen eta orduan eztabaida sortu zen, batzuk publikoaren alde eta beste batzuk orain arte moduan jarraitzearen alde.

Nik uste dut ikastola nahiko publikoa dela, herri batena dena ez da pribatua.

Hemendik aurrera erabakiak ez dira Atxabaltan hartuko, administrazioan baizik.



Bigarren iritsi hau Loramendi Ikastola publikoaren aldekoa da. Oraingo honetan, Alberto Trojaolarekin izan gara.

Orokorrean hartuta ez nago publikoaren alde. Nik uste dut Atxabaltan irakaskuntza mailan egoera berezia da-goela eta nire iritziz,

Atxabaltako egoera kontutan izanda hartu behar zen erabakia. Eskola Publikoaren alde gaudenok ere lege horrek ez gaitu guztiz konbentzitzen.

Atxabaltan jaitze kopurua txikia dago, haur horiek banatzeko hiru eskola daude Atxabaltan: Santa Rita, Ikastola eta kurtzebarri Eskola.

Garai batean Kurtzebarri eta Ikastola elkartzea erabaki zen, erabakia haurren kopuru gutxitzeagatik izan zen.

Momentu honetan, egoera antzekoa edo okerragoa da, eta nik

zaila ikusten dut Atxabaltako haurrak hiru eskoletan banatzea.

Baina hori zela konpondu? Orain arteko esperientzia nahiko positiboa izan da.

Baina zela mantendu? Posibilitateak honako hauek ziren: bata publiko bihurtu, beste bat Ikastola izaten jarraitu, Udal Eskola moduan eta beste bat Almenekin bat egin.

Nire ustez Publiko bihurtu ezker normalean Kurtzebarriekin lotuta joatea izango litzateke. Baina azkenean Delegaziorako Atxabaltako bat izango da, Kurtze-

barriri lotuta. Alde bate-tik legeak jartzen dituen mugak daude, baina beste aldetik azken urteetan Kurtzebarri eman den aldaketa ere hor dago. Gaur egun Kurtzebarri guztiz euskalduna da, irakasle goak estabilitatea dauka, herriko hezkuntza proiektuekin konprometitu-ta dago eta gaur egungo hezkuntza planteamentuei ondo erantzuten dion eskola da.

Hori denori ikusita, gaur egun ere berdin jarraituko duela suposatzen da eta nahiko garrantzia ematen duen proiektu interesgarria da.

Herriko ume askok ikasten du Almenen; hori dela eta, Almenera jo dugu euren iritzia ezagutzeko asmoz. Maia Etxeberria eta Txaro Iraetarekin egon gara berbetan. Euren esanetan, Almen ikastola den aldetik, inoiz ez da orain arte planteatu pribatu edo publiko izan behar duen, bailarako herritarrek jestionatutako ikastola izatea baizik.



"Oraindik Ikastolak zeresan haundia du"

• Orain arte Almen ikastola zela zegoen?

• Publikoa edo pribatua izatea, nahiko kontzeptu juridikoa da eta Almen ez da orain arte sekula planteatu kontzeptu horreitan zer den edo non sartzen den.

Administratiboki batean edo bestean egon behar da eta Almen batean egon da. Almen sortu zenean, bailaran ez zegoen aukerarik ikasketak egiteko eta urrun joan behar zen. Orduan ikasketak edukitzea edozeinen eskuetan egon behar zela eta, filosofia horretan sortzen da Almen eta gainera kooperatibak garai berean sortu zirenez, filosofia horrekin sortu zen. Gurasoak eta herriko jendea ere gurekin elkartu ziren. Elkarlan haren ondorioz sortu zen asoziazioa gero kooperatiba eta ikastola izango da.

Prozesu horretan ez da planteatzen publiko edo

pribatu izatea, jendea gustora dago bere eskola duelako, eurak dira agintzen dutenak eta abar. Publikoak administrazioaren eskuetan daude, Almen katalogazio horretan sartzen ez denez pribatua dela esango dute. Baina ez dugu sekula pentsatu zentru pribatu izateko sortu denik.

• Nortzuk osatzen dute Asanblada?

• 3 bazkide mota daude: langile guztiak, guraso guztiak eta borodatez dauden bazkideak. Azken horien artean badaude bazkide indibidualak eta baita entitate edo enpresa bazkide direnak ere. Horiek osatzen dute Asanblada Orokorra. Asko garez sektore desberdinen ordezkariak osatzen da. Sektore bakoitzeko ordezkariak aukeratzen dira eta sektore horiek hartzen dituzte Almeneko erabaki guztiak.

• Ze postura hartu

duzue Eskola Legearen aurrean?

• Aztertu izan dena honako hau da: zein izan den Almenen funtzioa, Almenen eginbeharra eta zein izango den hementik aurrerakoa. Lege horren barruan posible izango genukeen orain arte izan garena izaten jarraitu ala ez. Argi ikusi da ez datorrela bat gurekin, lege horrekin kooperatiba desagertu egin beharko litzateke, hemengo jabea administrazioa izango litzateke eta horren arabera bazkiderik ez eta erabakiak Gasteizen hartuko lirateke.

Hasieran pribatu geratzean subentzioak ez zirela jasoko esan zen; baina orain jakin da jasoko dugula orain arte jasoko duguna. Orduan ekonomikoki arazorik ez dagoela eta afektatzen ez gaituela ikusita, lasaitasunez aukera egitea ahalbiderratu digu.

Azkenik maiatzaren 24ean egin zen asanbladan erabakia hartu zen. % 90a agertu zen orain arte jarraitzearen aldekoa eta % 10a sare publikoan sartzearen aldekoa, guzti hori Euskal Eskola Publiko barria sartzeko lan egiteko konpromezuaz.

Orokorrean esango genuke lege horrek proposatzen digun Euskal Eskola Publikoa ez duela asetzen, inondik ere, gure herriak dituen espektatibak. Euskal Herriak Eskola Publiko propioa behar du eta kreatibitatea, imajinazioa eta borondatea behar dira, eskema zaharrak apurtuz, formula barriak topatzeko. Zentzu horretan, Ikastolak zer esan haundia dugula uste dugu eta guretzat argi dago helburu barri horietara gerturatzen joan arte ezin diogula utzi orain arte izan garenari. Hori da, bada, gure posizionamendu eta balorazioaren arrazoia.



Uda desberdina izateko aukera

Aurtengo uda desberdina izan dadin hainbat ekintza desberdin antolatu ditu Deba Garaiko Udal Kirol Zerbitzuak.

Honako ekintza hauek antolatu dira: Kainoi jaitziera, parapentea, ur lasterretako piraguismoa eta "rafting" a.

Kainoi jaitziera uztaileko aste bukaeretan izango da Fagon, Arondarin eta Infernuko Amildegian. Taldeak gutxienez 3 pertsonaz osatuko dira eta 16 urtetik gorakoak izan beharko dute. Urteera horien prezioa Deba Garaiko Udal Kirol Zerbitzuen bazkideendako 3.500 pezetakoa izango da eta 4.000 pta gainontzekoendako. Beharrezkoa izango da trajea eroatea.

Parapentean hasierako ikastaroa Oñatin emango da. Lehenengo txanda uztailaren 6, 7, 13, 14, 20, 21, 27 eta 28an izango da eta

bigarrena uztailaren 3, 4, 10, 11, 17, 18, 24, 25, 31 eta 1ean. Ikastaroa goizeko 9etatik 12ak arte izango da eta arratsaldean 5etatik 8ak arte. Eguraldiak lagunduko ez balu saioak hurrengo asteburura arte atzeratuko lirarteke. Osatutako taldeak 8 - 10 lagunekoak izango dira eta hauek ere 16 urtetik gorakoak izan beharko dute. Prezioa 14.000 ptakoa izango da eta beharrezkoak izango dira mendiko botak.

Ur lasterretako piraguismoa uztaileko aste bukaeretan egingo da. Gutxienez 5 pertsonatako taldeak izan beharko dute eta gehienez 14koak, eta denek 16 urtetik gora euki beharko dute. Prezioa 7.500 ptakoa izango da Deba Garaiko Udal Kirol Zerbitzuetako bazkideendako eta 8.000 besteen-dako.

"Rafting" a Galego errekan egingo da. Lehenengo txanda uztaileko 7, 14, 21 eta 28an izango da eta bigarrena 3, 10, 17, 24 eta 31n. Taldeak gutxienez 5 pertsonatakoak eta gehienez 14koak izango dira. Bazkideendako 3,500 pta eta 4.000 pta bazkide ez direnendako.

Ekintza horietan parte hartu gura dutenek, Atxabalatako Kirol Etxean eman beharko dute izena, Arrasaten Musakolako Kirol Etxean, Bergaran Udal Kirol Zerbitzuetako bulegoan Oñatin Zubikoa Kirol Etxean eta Elgetan Kirol Etxean. Ordainketa Kutxan egin beharko da dirua 202. 0. 00057.8. zenbakian sartuz.

Badakizue, uda honetan zerbait desberdina eta orijinala egin gura baduzue animatu eta apuntatu zaitez.

Igeri ikastaroan izen emateko epea zabalik dago, bai nagusientzat, baita haurrentzat ere. Plazak mugatuak izango dira. Ikastaroen prezioa 2.500 bazkideendako eta 3.500 bazkide ez direnendako. Izen ematea Kirol Etxean.

Nesken futbol taldeak, domekan, Gipuzkoako Kopako semifinaletan, 5 eta 0 galdu zuen Arrasateko taldearen aurka. Orain domekan, bueltako partidua jokatu beharko dute Aretxabaletan.

Aste honetako Arlutz saskibaloitxo txapelketako emaitzak: Fatxua 31-Las Kagau.R 34; Flispas 42-Arabatxo Waka 47; Saco de speed 32-Dos de caso 63; Don Mendo 31-Basotxo 32.

Jose Ramon Elkorok 32 urte ditu, eta nahiko gaztea izan arren, esperientzia haundia du musika munduan: "Jazz" taldeetan, Euskadiko koruan, jaietako taldean, Gasteizeko Udaleko txistulari taldean, ... hauek dira Jose Ramon Elkorok pasatu dituen lekuak. Perkusiozko tresnak jotzen ditu Jose Ramonek, baina gehien gustetan zaiona bateria da. Honetaz gain, Atxabaltako bandako partaidea ere badugu.



Bizitza osoa musika munduan

• Zela hasi zinen?

• Txikitan banuen tokadisko zahar bat, eta haretxekin animatu nintzen musika munduan sartzera.

• Nork bultzatu zintuen musika munduan?

• 12 - 13 urte nituela, Aretxabaletako bandaren zuzendaria izan zen Demetrio Iriartek txistulari taldea sortu zuen, eta hantxe hasi nintzen.

• Solfeoa non ikasi zenuen?

• Demetriok solfeo pixka bat irakasten zuen herrian, baina batez ere praktikatuaz ikasi nuen.

• Baina orain zau-

den lekuraino heltzeko, zerbait gehiago ikasi behar izan zenuen, ezta?

• Bai, Arrasaten ikasi nuen solfeoa sakonago.

Gero Donostiako Kontserbatoriora joan nintzen azterketa egitera.

• Ze ikasketa daukazu?

• Solfeo ikasten 5 urte egon nintzen, baina horrekin batera beste gauza batzuk ere egin nituen: 2 urte armonia, beste 2 urte " Conjunto instrumental ", 3 urte tresnak, 3 urte musika pedagogia eta gero " Conjunto de camara ", historia eta estetika mu-

sikala eta akustika.

• Ze instrumento jotzen duzu?

• Nik perkusiozko tresna guztiak jotzen ditut, baina gehien gustetan zaidana bateria da.

• Zenbat urte da-roazu musika ikasten?

• Pentsa ezazu, 18 urterekin hasi nintzen eta oraindik ez dut bukatu. Orain adibidez armonia modernoa ikasten nabil eta bukatzen dudanean auskalo!

• Egunero zenbat ordu sartzen dituzu?

• Egun guztian nago musikan pentsatzen, nahiz eta klaseak ematen edo hartzen ez egon. Beti saiatzen naiz soinu

barriak entzuten, irratian edo beste lekuren baten.

• Ez duzu inongo taldetan parterik hartzen?

• Bai, 5 lagunen artean sortu genuen Txintzarri izeneko talde bat eta jaiz jai jotzen ibili ginen. Gero, Donostiako Jazz talde batean egon nintzen eta horrekin, tabernetan jotzen nuen.

• Musikatik irabazten den diruarekin bizi daiteke?

• Bai, nik lehen lan-tegi batean lan egiten nuen, eta lantegia utzi nuen musikarako denbora gehiago behar nuelako. Lanean 8 ordu sartuta egunero ez neukan astirik musika munduan ibiltzeko. Musika, asko gustatu ezker denbora asko eramaten dizu.

Orain ondo konpontzen naiz nagoen moduan, askoz denbora gehiago daukat.

• Zure etxean zer esan zizuten lana utzi zenuenean?

• Hasieran harrirituta geratu ziren, eta egia esan ez oso pozik, lana ustea, gauza dagoen moduan ez da txantxetan hartzeko gauza, baina orain ohitu egin dira eta ez dute ezer esaten.

**Txema Aragones
Arantxa Galdaera**

Afariak dira gure kirola



J.J. Aretxaga

Afariak dira gure herri honetan akontezimendu normalenetaikoak. Gaurko honetan 5 afari dauzkat aipatzeko. Lehenengo, **Beinkek** egingo duen kantu afaria, 29 zapatuan. Herrian egiten den afari zabal bakarretaikoa (gura duena joateko). Aurrekoan 50 lagun elkartu ziren, koruko laguntzaz afalostean gozo kantetako. **UDAK** ere afaria egingo du ekainaren 4ean, direktibak eta jokalarri guztiak, neskak barru. 29ko zapatuan beste hiru afari daude: 69an jaiotako kinto afaria, **Almeneko** 2. promozioan 4. batxilerra egin zutena, irakasle eta guzti, eta azkenik **Ikastolako** 2. promozioko ume haundiak, Getarian.

Bueno, afariez aparte beste gauza batzuk ere egiten dira herrian. Gaztetxean lehendakari barria aukeratu dute. Ez du batere pegatzen "lehendakariak" "gaztetxearekin" ezta? Ba kontua da baietz, badaukatela lehendakaria. **Salbador Rodriguez** izango da. Loramendi Dantza taldean ere gorabeherak dabilta. Na-

hikoa lan dute **Jose Anjel Lazkano, Aintzane Aizpurua** eta konpañiak dantza aurrera ataraten. Hilaren 27an bilera egin dute umeen gurasoekin. Lan ederra egin da urte askotan eta ea indar barririk badagoen.

Aurreko batean herriko koruan gizonzkoen ahots barriak behar zirela esan genuen. Hurrengo batean izen barri batzuk eman genituen. Orduetik gehiago animatu dira: **Imanol Aizpurua, Juan Mari Okina, Gorka Etxabe, Dabid Gonzalez, Oier Aranzabal, Oier Etxebarria, Julen Cobos** eta **Josu Antxia**.

Goazen kiroletara. Herriko bikoteen arteko pala txapelketa jokatu da udabarri honetan. Bikote dexente apuntatu ziren eta ligilatxo egin ondoren aurreko astean izan zen finala. Kanpeoi **Maritxalar eta Txomin** geratu ziren eta bigarren **Orobengoa anaiak**. Bilbo aldera aldegingindako herriko futbolista gazteak, **Igor Arenazak** hasieratik jokatu zuen lehenengo aldiz, eta gol bat sartu eta penalti bat probokatu zuen. Ez da hasiera txarra. Bilbo baino urruntoago joan diren beste batzuk ere badaude, K-2ko espedizionarioak. **Felix** aurreko astean joan zen, baina **Alberto, Joseba, Jon Ander** eta **Fernandok** joan zan domekan urten zuten. Lagunak frakak saltzen utzi dituzte.

KOMIKIA



27

EGUENA

- Beinkeko emakume taldearen aurkezpena, 3retan Uratzalde Elkartearen.

28

EGUAKOTXA

- Gaueko 10etan, Zaraia zineman, **ÑAKE** taldearen eskutik, "Vivir del cuento".

29

ZAPATUA

- Beinkeko bazkideentzako mintegia, Kurtzebarri eskolan arratsaldeko 3retan bilduko dira eta 7retan bukatuko da.

- Beinkek antolatuta: **Kantu afaria, Uratzalde** Elkartearen.

30

DOMEKA

- Murruxiko Mendi

Elkartearen urteera: **Ar-lutz Degurixa.**

- Zikloturisten urteera: **Aretxabaleta - Urbina - Gasteiz - Gasteizeko portua - Uzkiano - Trebiño - La Puebla.**

- Zaraia Mendi Taldearen eskutik: **herriko gazteen IV. Martxa** erregulatua.

5

ZAPATUA

- Hiru haundiak: **Gorbeia - Anboto - Aizkorri.**

6

DOMEKA

- Murruxiko Mendi Elkartearen urteera: **Txindokira.**

- Zaraia Mendi Taldearen urteera: **"Mendia berez garbi".** Zariaren garbiketa, mural eta idazlanen txapelketa.

- Zikloturisten urteera: **Aretxabaleta - Kanpantzar - Berriz - Trabakua - Markina - Berriatu - Ondarrua - Deba - Aretxabaleta. (100 Km).**

ARETXAZOKA

Lana

- 8. mailako haur bati, klase partikularrik emateko pertsona bat behar da. Tfnoa: 79 05 26.

- Ingeneritzako ikasle bat, klaseak emateko prest: Matematika, teknologia, fisika eta kimika. O.H.O., REM eta U.B.Iko mailetan. Interesatuak telefono honetara deitu: 79 50 39.

Salerosketak

- Pisu bat alkilatzea gura nuke eta guztiz utsa baldin badago hobeto. Gauetan deitu telefono honetara: 77 11 22.

- Pisu bat saltzen da. Interesatuak telefono honetara deitu: 79 07 36.

- Lur azpiko garaje saltzen da. Interesatuak telefono honetara deitu: 79 86 72

Salerosketak

- Pisu bat alokatzeko dago. Interesatuak telefono honetara deitu: 79 40 19.

- Atxabaltan pisu bat alkilatzea gura nuke. Lo egiteko aukera bakarririk. Tfnoa: 79 59 78

- Seat Panda, ss-0408-S, egoera honean salgai. Dei egin denda orduetan 79 86 75era.

Orrialde honetako iragarkiak (lana, etxebizitza, salerosketak eta abar) debalde dira. Testua idatzi eta bidali gure bulegoetara edo 151 postakutxatilara.

SEAT

GARAJE OSKAR
 Basabe poligonoa
 A - 2 - 4
 Tfnoa: 79 98 74

ZARAIA TABERNA
 GOIZEKO 5,30etatik
ZURE ZERBITZUAN
 MANTEKA
 ANAIK


BASABE JATETXEA
 Menu eta afariak
 Industrialdea
ARETXABALETA
 Tfnoa: 77 07 94
 79 91 84

ITURGINTZA

 Tfnoak: 79 07 34
 79 31 87

LEIBAR
 ARRAINDEGIA

 Mitarte Kalea, 1 - Tfnoa: 77 13 79
ARETXABALETA


 Mitarte 21, behea
 Tfnoa: 79 79 79
ARETXABALETA


T X I L A R R A

ELIKADURA BEREZIA
 Durana, 35
 Tfnoa: 79 10 15
 Loramendi, 9
 Tfnoa: 79 44 28
ARETXABALETA

Zatoz ezagutzera ZUHAITZ jatetxea!

BAZKARI ETA AFARI ONENAK!!!
 Tfnoa: 71 46 08
GATZAGAN

RKLU
INDUSTRIA HORNIKUNTZAK URKULU, S.A
 Mitarte, 23
 Tfnoa: 79 96 66

IMANOL ARRAZOLA
KLINIKA DENTALA
 Otalora, 18 - 1. D
 ☎ 79 93 55

Mobiliario ALTZAIRUAK DISEINUA APAINKETA
ARENZA
 Bizkaia, 1 - Tfnoa: 79 08 07 **ARETXABALETA**

LASA-AGUILERA
Aholkularitza
 Andra Mari Auzunea,3
 ☎ 79 29 26
ARETXABALETA

ARETXABALETA ITURGINTZA
 Durana, 16
 Tfnoa: 79 17 53
ARETXABALETA

OSKAR
HARAGITEGIA
 Loramendi, 1
 ☎ 79 71 69
ARETXABALETA

NERIAN
 Loradenda
 Otalora, 14 behea
 Tfnoa: 79 70 66



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Zatoz %7ko Superlibretaren abantailak ezagutzera.

Superlibreta, duen errentagarritasun handiak eta sinpletasunak bereizten du. Baina, zuk, gainera, jakin beharko zenuke...

- helbideratze guztiak onartzen dituela: nomina, pentsioa, ordainagiriak, kontribuzioak, e.a.
- kobruak, ordainketak eta eskudiruaren erabilerak formaliza daitezkeela gure edozein sukurtsaletan.
- kutxazain automatikoetan eragiketak egin eta dendetan ordaintzeko ServiRed Visa Txartela dohainik lor daitezkeela.
- ez duela komisiorik.
- interesak egunero kalkulatu eta azaroaren 30ean ordaintzen direla denak batera.
- urteko interes finkoa, UTBa, %7,15ekoa dela 100.000 pta.tik gorako saldoetan, eta %0,10ekoa kopuru hori baino saldo txikiagoetan.
- Euskadiko Kutxaren ohizko libreta Superlibretaz aldatzea oso erraza dela, helbideraketa, txartel eta abarri ez baitie eragiten. Bakar-bakarrik libreta aldatzen da.